

Josu
Oregi
Aranburu

1919-1995

BIDeGILEAK

Egilea:

Eneko Oregi



JOSU OREGI ARANBURU

(1919-1995)

GARAI ITXAROPENTSUAK ETA ARRISKUTSUAK

Josu Oregi Aranburu Bergaran jaio zen 1919ko abenduaren 18an.

Aita, Bizente, Bergarakoa zuen, Osintxu auzoko Oregi baserriko leinukoa. Ama, Bitori, Urretxukoa. Bidakruzeta kalean, San Martin enparantzaren ertzeko etxean, bizi izan ziren. Han jaio zen Josu eta San Pedro parrokian bataiatu zuten. Ondoren, 1946 aldera, Santa Marina eliza aurrean Zubiartea etxea egin zuten. Josu seme nagusia zen eta Miren, alaba.

Batxiler ikasketak Bergarako dominikoe-tan eta Lekarozko kaputxinoetan burutu zituen. Lekarozko ikastetxea, 30eko hamarkadan euskaltzaletasun-habia zen. Han ezagutu edo irakasle izan zituen, besteak beste, Aita Jose Antonio Donostiakoa («Aita Donosti»), Aita Jorge Riezukoa, Aita Polikarpo Iraizozkoa, Aita Damaso Intzakoa, eta abar. Han alfabetatu zen euskaraz eta han euskaltzaletu.

Batxiler ikasketak burutu eta Bilbora joan zen 1935. urtean, injineru-eskolan sartzeko «Preparatorio» zeritzan ikasturtea egitera.



Bergara 1918 aldera. Eustaquio Aguirreolearen argazkia. Bergarako Udal agiritegia



Aita, Bizente Oregi Gabilondo bergarra



Ama, Bitori Aranburu Urkiola urretxuarra

Hurrengo udaran, Espainiako armada-
ren altxamendua gerra bihurtu zenean,
Bergaran zen, oporraldian. Aita zinegotzi
abertzalea zen (1931n izana zen eta bai-
ta berriz 1936ko otsaileko hauteskundefe-
tan). Ama, berriz, Bergarako Emakume
Abertzale Batzako kidea eta burukidea.
Ondorioz, bergarar andanarekin bate-
ra, ihesi joan beharra izan zuen familia
osoak matxinatuak Bergaran sartu baino
lehen, 1936ko irailaren 20an. Urretxun,
ordea, Angel, 17 urteko lehengusua, fusi-
latu egin zuten matxinatuek, Hernaniko
kanposantuan, antza, 36ko uztailean he-
rriko ezkertiarrek elizak erre ez zitza-
ten Eusko Gaztediko lagunekin batera gaua
goardan, armarik gabe, noski, pasatze-
arren. «Rebelión militar» egotzi zieten, lo-
tsagabe, altxatuek!


Mundakan pasatu zuten 37ko negua eta
1937ko apirilaren hondarrean, Gernika
bonbardatu eta bi egunera, Zallara joan
ziren eta handik erbestera (ama eta arre-
ba *Habana* ontzian, 1937ko maiatzaren
10-12an Bordelera; Josu eta aita, hegaz-
kinez), maiatzaren hondarrean. Doni-
bane Lohizunera jo zuten. Handik Bel-



Belgikan, 1938 inguru, beste ikasle eta irakase batzuekin



Euskal ikasle talde bat Belgikan, 1938 inguru



Oregi lantegiaren marka

gikara bidali zuten ikasketak jarraitzeko asmoz.

Liege hirian jesuitek zuzentzen zuten «Institut Gramme» izeneko injineru-eskola ezagun bat, euskaldun asko hartu izan dituen urteetan zehar Han ibili zen injinerutza ikasten 1937 eta 1939 artean. Munduko gerratea bazetorren, baina, eta 1939aren azkenaldian ikasketak eten egin

behar izan zituen eta Euskal Herrira itzuli. Ez zituen, ondorioz, ikasketok burutu ahal izan.

Bazetorren gerragatik Iparraldean gelditu ezinik eta Bergarara itzultzea arrisku izaki, Bartzelonara joan zen lehendabizi familia osoa eta, ondoren, 1941ean, amaren jaioterria zen Urretxura, Bergarako giroa baretu arte eta herriko francozaleek kalterik egingo ez zietela ziurtatu eta gero.


Aita, Bizente, 1920an sortutako «Oregui, Unzurrunzaga y Cia» fabrikako bazkide zen, anaia Domingorekin batera. Han hasi zen Josu lanean Bergarara itzulita koan. Ondoren «Oregui y Cia» sortu zuten 1945ean eta han jarraitu zuen, aitaren esanetara aurrenik eta fabrikaburu gero, harik eta 1975ean fabrika itxi zen arte.

Bergaran ugari ziren ehun-fabrikak XX. mendean, 1846an «Algodonera de San Antonio» sortu zenetik, Oriako «Brunet» etxearen ondoren Gipuzkoako bigarrena. Bergaran ehungintza industria errotu egin zen, langile askori, gizon eta emakume, ematen baitzioten lana lantegiek.

Areago, gerra osteko «autarkiak» (faxistek Munduko II. Gerra galdu izanak Francoren diktadurari ekarri zion isolamenduak, alegia) inportatu ezineko ehun eta oihalak produzitu beharra areagotu zue-
nean.

1975ean, esan bezala, fabrikak porrot egin zuen eta irabazpiderik gabe gertatu zen. Orduan Josu Bergarako Institutuan aritu zen euskara-irakasle. Ondoren, 1977an, *Deia* egunkari sortu berrian sartu zen, euskal orriaren arduradun gisa.

Eusko Legebiltzarra eratu zenean, bertako itzulpen-zerbitzuez arduratu zen. Han egin zituen lehen aldi baterako interpretazio-saioak, Jose Agustin Orbegozo frai-



Josu Oregi *Deia*ko erredakzioan

de pasiotarrarekin batera. Itzulpen- eta interpretazio-zerbitzua sortu eta haren arduradun izan zen erretiroa hartu arte, 1987ra arte.

Tolosako Miren Goñirekin ezkondu zen 1952ko urriaren 17an (Tolosan gerraz gerroztik izandako lehen euskarazko ezkontza izan omen zen) eta bost seme-alaba izan zituen: Eneko, Uxue, Xabier, Mikel eta Arantzazu.

Bergaran hil zen 1995eko apirilaren 14an.



Emazte Mirenekin, Zubiarte etxe aurrean 1953an

KRISTAUTASUN IREKIA

Josu Oregik, ideologiari dagokionez, bi ardatz izan zituen bizitza osoan zehar: fede eta abertzaletasuna. Ardatz horiek oinarritu eta egituratu zuten bere bizitza eta horiek bultzatu eta sostengatu zuten bizialdiko ekintza guztietan.

Fedeari buruz, katoliko zintzoa zen, baina beti ibili zen integrismotik aldentuta,



Zenbait ikasle euskaldun Belgikan, 1938-1939 (ezkerrean, Iñaki Rotaetxe, Ramon Martín; eskuinean, Mikel Urreta eta Koldo Martín; makurtuta, Josu Oregi)

bai orduko euskal hierarkiaren nazional-katolizismo espainiarretik, bai geroago zabalduko zen integrismo «modernotik», Escrivá apaizak sortutako mugimendutik, alegia. Katolizismo frantsesa ongi eza gutzen zuen eta arretaz aztertu: Maritain, Mauriac eta, geroago, Teilhard de Chardin-en kosmologia, esaterako. Frantses katolizismo horren bozeramaile zen *La Table Ronde* aldizkariaren harpidedun izan zen urteetan. Filosofian, horiez gain, Xabier Zubiri zuen sakon irakurria eta aztertua. Jainkoaren ikuspegia eta zientzia modernoa filosofiarekin uztartzeko ahalegina zituen gogokoen filosofo horren liburuetan: *Naturaleza, Historia, Dios* (1944), *Sobre la esencia* (1962), *El hombre y Dios* (1984), besteak beste.

Zientzietan, fisika zuen gogoko: Einstein-en erlatibitatea, fisika kuantikoa eta, oro har, egungo fisika. Euskaraz azaltzen ere saiatu zen, *Elhuyar* aldizkarian 1975ean argitaratutako «Egungo fisikaz» artikuluan.

Politika kontuetan, jeltzalea izan zen bizi osoan eta jelkidea 1985 arte. Aurrerago azalduko dugu EAren sorrerak sortu zion etena eta hartu zuen bidea.



Institut Gramme, Lieja, 1938-39 ikasturtea

Demokraziaze konbentzitua zen, beste ezer baino lehenago: kristau errokoa, giza duintasunari atxikia eta, ondorioz, indarkeriaren aurkakoa. Ez zuen behin ere onartu, konbentzimendu etikoz, indarkeriaren erabilera eta beti, 60ko hamarkadaz geroztik, gaitzetsi zuen Euskadiren askatasunaren izenean sortu zen indarkeria.



Institut Gramme, Liejako Injineru Eskola



Lekarozko txistulari-banda

ABERTZALE ETA JELTZALE

Abertzale eta jeltzale izan zen Josu Oregi bizi guztian, esan bezala. Bai jendarean eta bai ezkutuan, gerra osteko une latzetan, diktadura beteko giro hits eta ilunean edota azken diktadurako garai nahasietan.

1945. urtean egin zen Bergarako EAJren Uri Buru Batzarreko lehenengo batzarra, Gasparrena jatetxeko terrazan, argiak itzailita; aurreko Uri Buru Batzarreko kideetatik Lino Lazkano gelditzen zen. Josu Oregik 26 urte zeuzkan.

Jakina denez, Eusko Alderdi Jeltzaleak aliatuen garaipenean jarri zuen itxaropena 1939tik 1950 arte, hori bai, gero eta etsiago, aliatuek, gerra hotza piztutakoan Francoren diktadurari hurbiltzen zitzaizkion neurrian, 1953an Estatu Batuek eta Vatikanok Espainiarekin harreman diplomatikoak berrezarri zituzten arte. Hasiera baten, Jose Antonio Agirrerren Eusko Jaurlaritzak diplomazia-bideak erabili zituen aliatuei Euskal Herriaren arazoa azaltzeko eta Frantzia, Ingalaterra eta Estatu Batuetan adiskideak biltzeko. Ondoren, aliatuekin eta beren zerbitzu sekretuekin jarri ziren harremanetan, Hitlerren aurkako gerrako ahaleginean parte izan nahirik. Gerraren azkenaldian, gero, gudari taldeak sortu izan zituzten, gerrakide izan nahirik. Euskal Herrian, bitartean, Eusko Alderdi Jeltzalearen ildo politikoari jarraituz, gerra galdu berri zuen herriaren itxaropena bizirik eusten eta nazio-kontzientzia sendotzen saiatzen ziren Bergarako abertzaleak, beste herri eta hirietakoak bezalaxe. 1940ko hamarkada hartan abertzale-jendea bildu eta antolatu, euskal kultura eta hizkuntzarentzat diktadurak utzitako zirrikituak erabili, Euskadiren al-



Donibane Lohizunen, 1952ko ekainaren 3an


deko propaganda-ekintza xumeak baina ez arrisku gabeak (Agustin Unzurrunzaga *Xabale*-ren heriotza ez zitzaien urte askotan ahaztu Bergarako abertzaleei) gauzatu (ikurrinak jarri, kalean orriak zabaldu eta abarri ekin zioten).

Euzko Naia izan zen, ziur aski, abertzaleek antolatutako lehen egitura. Bergaran Lino Lazkano, gudari-buruza-gia zen organizazio horren buru, behin kartzelaldia bukatu eta gero. *Euzko Naia* izan zen Noël Baker Britainia Handiko Parlamentuko kide laboristak

Euskal Herrian barrena herririk herri ezkutuan egindako bidaian bide-bazterretan gizonak formatuta jarri zituen organizazioa.

Euzko Gaztedi ere antolatu zen Bergaran eta propaganda egitea zuten helburu nagusia. Joakin Intzak idatzi eta argitaratu ditu, bere bizitza mugituaren beste pasarte batzuk bezala, hasierako Euzko Gaztedi haren pasadizoak.

1955etik aurrera, aliatuek Franco kanporatuko zuten itxaropena desagertutakoan, abertzaleen gau iluna hasi zen Euskal Herrian. Ez zirudien ezer alda zitekeenik diktadurapeko gizarte sorgortu hartan eta etsipenak jo zituen zenbait abertzale. 1960ko hamarkadan, bestalde, aldaketa sakona jasan zuen euskal gizarteak: immigrazio bortitzak milaka eta milaka langile ekarri zituen Espainiako lau bazterretatik, sekularizazioa azkar zabaldu zen Euskal Herriko azken herrietaraino eta joera eta mugimendu berriak erroto ziren: existentzialismoa eta marxismoa, bereziki. Josu Oregik Eusko Alderdi Jeltzalearen baitan jarraitu zuen



Gernikako Batzar-etxean, 1980-05-12. Maurits Coppeters eta Jaak Vandemeulebroucke, Volksunie alderdiko diputatuekin


lanean, Bergarako herrian eta Erresistentziako erakundeetan, euskalgintzan eta kulturgintzan.

Diktadura amaitutakoan, 1974 eta 1979 bitarteko garai nahasian, Eusko Alderdi Jeltzalea argitara atera zen berriro eta Josu Oregik Alderdiarentzat lan egin zuen bolada batez, euskara eta kultura arloan.



Joseba Leizaola legebiltzarburuarekin, 1993ko abenduan

Josu Oregik ez zuen inoiz kargurik izan. Ez zuen bere burua politikagintzan ikusten, herrigintzan baizik. 1980ko hamarkadan Eusko Alderdi Jeltzalearen baitan tirabirak sortzen hasi zirenean, burukide batzuen jokabidea gaitzetsi zuen, demokrazia-senez, eta abertzaletasun irekiagoa eta berritzaileagoa iritzi zion Garaikoe-txeak aldarrikatzen zuen bideari. Mingarri gertatu zitzaion oso Alderdiaren zatiketa eta lazgarri Alderditik kanpo geratzea, baina Eusko Alkartasunako kide izan zen handik aurrera, hil arte.



Euskal adizkera, Bilbao, 1984

Euskalari eta eragile

EUSKAL ADITZAREN IKERLE

Euskalari bezala, euskal aditza izan zuen aztergai eta idazgai nagusi. Euskal aditzaren paradigma osoak, gipuzkeraz nahiz bizkaieraz, jasotzen eta aztertzen jardun zuen urte luzeetan, 60ko hamarkadara arte, eskuz txukun asko idatzitako hiru koaderno marduletan.

Haratago joanez, euskal aditzaren zenbait alderdi jorratu zituen, aldizkari desberdinetan argitaratuz. Lehenengoa, gaztelaniaz, 1953an argitaratu zuen Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen Buletinean (*Boletín de la RSBAP*) «Sobre algunos aspectos de la conjugación vas-

ca» izenburupean. Harrez gero, euskaraz idazlanak ateratzen joan zen zenbait aldizkari espezializatutan: aditzaren pluralizatzaileei buruz («Aditzeko askargille batzuei buruz», 1971n, *Fontes Linguae Vasconum* Nafarroako Principe de Viana erakundearen aldizkarian) edota Bizkai-Gipuzkoetako aditz-forma zaharren batasunaz eta zenbait aditzen erregimenaz («Ochoa Arinen Doctrina (1713)», 1972an, aldizkari berean).

Saio berezia eskaini zion zenbait aditzen erregimenari, datibotasunari, bereziki «Erion aditzaren erabil-arauez» artikuluan, 1973an Kardaberaz Bazkunaren agerkarian) eta «Euskal aditzaz zenbait

euskal aditzaren sorrera («Berriz ere euskal aditzaz», 1985ean, *Fontes-en*).

Euskal aditzari buruz idatzitako artikuluekin, liburua atera zuen 1982an, «Euskal adizkera. (Hitzaurre bat eta hamaika saio. Piarres Lafitteren Atari gisakoa)».

Euskaltzain urgazle zen 1965etik.

KULTURA-ERAGILE

Bergarara 1945ean itzuli ondoren, euskarazko ikastaroak antolatu eta emateari ekin zion Josu Oregik. Bergarako Eskola Elementalean, D. Migel Altuna apaiz eta Eskolako zuzendariaren babesarekin, eman zituen eskolak, bi alditan: 1945etik 1952 arte eta 1960tik 1966 arte. Ikastarohoriek emateko hasi zen, beharbada, euskal aditza aztertzen eta aditz-formen paradigma garatzen.

Garai hartan, jakina denez, ez zen euskal liburu askorik argitaratzen. Josu Oregik, noski, argitaratzen ziren guztiak erosten zituen, adiskideen artean zabaltzen eta, askotan, tirada finantzatzeko ale mordoa eskuratzen. Euskal liburu zaharren zale-



Donostian, Simon Arrieta, Josu Oregi, Joakin Loidi eta Simonen bi anaia, Simon Arrieta margolari bergararraren lehen erakusketa egunean

tasuna ere bazuen eta han-hemenka erosi zituen, urteen buruan liburutegi aberatsa izan arte. Erosteaz gain, irakurri eta aztertuak zituen hainbat euskal klasiko, euskalaritza-lanetan ikusi den bezala.

Euskalgintza abertzaletasunari lotu izan zion beti Josu Oregik, euskal izaera iraurarazteko eta geroratzeko helburuz eta baita garatu eta aberasteko xedez ere. Bergarako herrian, beste euskaltzale eta abertzale batzuekin batera, euskarazko ikastaroez gain, antzerki-taldeak ere lagundu zituen. Horrelako batean hasi zen Juan Luis Bikuña kazetaria, gaztetxo zela.



Academia Errante. Bazkalondoan, Busca Isusi eta Josu Oregi, besteak beste



Zerainen, 1953ko Andramarietan, Josu Oregi eta Manuel Laborde

Juste Amenabar edota Txomin Amasorain aipa daitezke talde hartatik.

1960an, Bergarako zenbait familia elkartu eta, elizaren babespean Bergarako lehen ikastola (gerra osteko lehenengoa, esan nahi da) sortu zuten. Gipuzkoako lehenetarikoa izan zen eta, paradoxaren paradoxa, Bidakruzeta kalean, gerra aurrean Batzokia egondako eta gerra ostean Falangek okupatutako lokaletan kokatu zen! Ikastola hartan, andereño Dominika Madinabeitiarekin, hasi ziren euskarazko eskolan 9 ume.

1967an, Jose Antonio Zabala adiskidearekin eta beste zenbaitekin, «Promoción Cultural»-en sortzaileetako bat izan zen; elkarte horrek makina bat lan egin zuen urtetan hitzaldiak antolatzen, ikastaroak bultzatzen eta euskarazko ekintza mota ugaria babesten. Miren Goñi emaztea izan zuen urte guzti horietan lankide, gogaide eta bidelagun.

Herritik kanpo, kultura arloan ziren talde eta mugimenduekin harremanetan izan zen beti, euskaltzaletasuna sustatzeko eta euskal nortasuna agerrarazteko. Horre-



Arantzazuko Euskaltzaindiaren batzarra, 1968an

la, Gipuzkoako intelektual eta idazle zenbaitek 1959 eta 1964 artean sortutako «Academia Errante» izeneko topagunean jardun zuen, Jose Mari Busca Isusi adiskidearekin. Manuel Laborde enpresaburua, Tomas Aauri apaiz eta Institutu-irakaslea, Yon Etxaide idazlea edota Joxemigel Barandiaran antropologoa izan zituen tarte garai hartan.

Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte (XVIII. mendean sortutako Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País

lagunarte ilustratua, alegia) berpiztu zenean, bertako bazkide eta bultzatzailetako izan zen. Gogoratu Elkarte horren *Egan* euskal aldizkariaren ardura Koldo Mitxelenak zuela.

Euskaltzale bezala hartu zuen Josu Oregik parte Euskaltzaindiak 1968an Arantzazun egin zuen bilera erabakiorrean. Jakina denez, batzar hartan onartu zen euskararen batasunerako Koldo Mitxelenak prestatutako txostena. Han sortu zen, beraz, euskara batua. Batzar hartatik

eta hamar urte beranduago, 1978an, Bergaran egindako batzarrera arte Josu Oregik batasunak sortutako etena osatzen, liskarrak leuntzen eta erdibide-saioak laguntzen eman zituen, beti ere euskararen batasunaren beharraz zeharo jabetuta eta Mitxelenaren bideari atxikita.

1982an Jaurlaritzak Euskararen Aholku Batzordea sortu zuenean, batzordekide izan zen 1986 arte.

ITZULTZAILE NEKAEZINA

Josu Oregik zenbait saio zituen eginak itzultzaile gisa, euskaratzaile gisa, hobe esan. Bere kulturgintzan zehar, hainbat aldiz hartu zuen bere gain testu bat edo beste euskaratzeko ardura. Euskararen ezagutza zabalak eta kultura sakonak laguntzen zioten horrelakoetan.

1973an argitaratutako Carlos Goena mediku eta josulagunaren *Giza Bizia* liburuan lankide izan zen, Ambrosio Zatarain eta Felipe Iurramendirekin batera. AnATOMIako eta medikuntzako hiztegia da *Giza Bizia* eta euskal terminologian egindako lehen saioetako bat dugu.

Ildo horretan, 1978an Espainiako Konstituzio idatzi berria euskaratzeko eskaria egin zioten, eta baita egin ere «*Espainiako Erresumalegea*» izenburuarekin. Dena den, Suarezren Gobernuak beste itzulpen bat ere eskatua zuen, azkenean ofiziala izango zena eta Josu Oregiren itzulpena ez zen argitaratu.

Baina, lehen esan bezala, 1980ko bueltan, Legebiltzarra eta Jaurlaritzak sortu berri-tan, bi erakundeotako itzulpen ofizialaz arduratzeko eskaria egin zitzaion Lehendakaritzatik.

Izan ere, 1979ko Autonomia Estatutuak euskararen ofizialtasuna aldarrikatu zue-



Begarako Institutuko irakasle-taldea afaltzen, 1977



Eusko Legebiltzarren egoitza Gasteizen

nez, bere 6. artikuluan, ezinbestekoa zen euskal erakunde berriek euskara erabil-tzea herritarrei zuzendutako argitalpen ofizialetan eta, ondorioz, itzulpena nahi-taezkoa gertatu zen.

Josu Oregi Gasteiza aldatu zen eta erronka berriari aurre egin zion. Erronka izugarria zen. Aurreko hilabeteetan Eusko Kontseilu Nagusiaren aldizkari ofiziala itzuli izan ba-zen ere, Eusko Legebiltzarren bilkura eta argitalpen guztiak eta Jaurlaritzaren Aldiz-karia euskaratzea lan ikaragarria baitzen.

Talde txiki bat osatuta (Joxemari Larrar-te eta Jose Agustin Orbegozo pasiotarrak,

Jose Luis Etxeberria, Iñaki Arrarte, ...) la-nari ekin zioten: Legebiltzarren bilku-retan interpretaritzalana (Bizkaiko Foru Aldundiaren batzar-aretoan lehendabizi, Arabakoarenean gero, Gasteizko egoitza berrian, azkenik), Legebiltzarreko testuak oro (Lege-egitasmoak, zuzenketak, ezta-baiden egunkariak, eta abar) eta Jaurla-ritzaren buletinean argitaratu beharreko testu guztiak euskaratzen. Josu Oregik lanerako ahalmena eta itzultzeko erraz-tasun izugarria erakusten zituen, egune-tik egunera, bere lankideekin, euskararen ofizialtasunaren erakusgarri behinenak zi-ren aldizkari haiek ateratzeko.



EUSKO LEGE BILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

BOLETIN OFICIAL
I LEGISLATUR

ALDIZKARI OFIZIALA
I LEGEINTZA-ALDIA

SESIO 8 Vitoria, 29 de Octubre 1980 8 SALTA
Proposiciones de Ley Gasteiz 1980 Unibai 29 Lege-Saltoa
Núm. 1 Lehengo Alia

Proposiciones de Ley
Lege - Saloak

Sobre extinción de la Corporación Administrativa «GRAN BILBAO», formulada por las Juntas Generales del Señorío de Vizcaya.

Bizkaiko Batzar Nagusiak egina, «GRAN BILBAO»-ko Arduralaritza-Baskunaren ezabapena.

PRESIDENCIA DEL PARLAMENTO VASCO

EUSKO LEGE BILTZARRERAKO
LEHENDAKARITZA

De conformidad a lo dispuesto en el artículo 83 del vigente Reglamento provisional del Parlamento Vasco y en aplicación del acuerdo adoptado por el Pleno, en la Sesión Ordinaria celebrada el día 9 de Octubre de 1980, se acordó la publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco de la Proposición de Ley formulada por las Juntas Generales del Señorío de Vizcaya, sobre extinción de la Corporación Administrativa «GRAN BILBAO», así como su remisión a la Comisión Parlamentaria III (Comisión de Ordenación Territorial y Política Sectorial) para su deliberación y emisión del oportuno Dictamen.

Indarrean dagoen Eusko Legebiltzarraren behin - behingo Arduralariren 83artean Aholak agintzen diren, eta Legebiltzarrak Unibertsitateko Urteraren 9an egindako Osoko Bileran hartutako erabakia egiten den. Bizkaiko Jaiurreriko Batzar Nagusiak «Bilbo Handi»-ko Arduralaritza-Baskunaren ezabapeneri buruz egindako Lege-Saltoa Eusko Legebiltzarreraren Aldizkari Ofizialean argi jarraitzen erabakitzen da, eta bai III Legebiltzar Batzordeari (Lege-Ordinazio eta Politikaren Batzordea) bidaltzen ere, zuzenki eta dagokion Erreputa eman dezaten.

Arlo arrotzeko itzultzailea

Eusko Legebiltzarraren Aldizkaria


EREDU JATORZALEA

Itzulpen-moldea, esan beharra dago, ez zen garai hartan (80ko hamarkadaren hasieran) administrazioan, udaletan bereziki, egiten zen itzulpengintzaren kidekoa. Zeharo bestelakoa zen.

Josu Oregik sakon aztertuta zituen lege eta administrazio arloan euskaraz egindako aurreko saioak, bai Diputazioetan, bai gerra-denborako *Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoan* ere. Euskarak, ordea, aurrerapen itzela zuen egina berrogeita zenbait urte haietan: estandarizazioan (euskara batua) eta gehiegizko garbiza-lekeria gainditzeko, besteak beste. Baina

euskara ez zegoen artean prestatuta une hartan eskatzen zitzaizkion beharretarako: terminologia juridikoa, fraseologia administratiboa, eta abar, arrotz zitzaizkion oraindik euskarari eta, zer esanik ez, euskal itzultzaileei.

Josu Oregiren itzulpen-eredua jatorzalea zen. Jatorzalea diot, eta ez garbizalea, maileguzko hitzak onartzen zituelako, hizkuntzaren baliabide guztiak erabiltzearen aldekoa izaki, geroxeago ikusiko dugun bezala. Hala jasotzen da Josu Oregiren beraren «Arduralaritza-euskeraren Baldintzak» lanean, in «Euskara eta administrazioari buruzko I. ihardunaldiak», Oñati, 1984. Horrela dio idaz-



Josu Oregi, etxean, idazten

lan horretan gerra aurreko garbizalekeriari buruz:

Garbizalekeriak euskerari egin zion kaltearen jakitun gera guztiak. Lehenagoko gehiegizko zabarkeriarekiko aitzi-oldarrak eraginda, beste muturrera jo eta «eliza» eta «errepublikak» ordez «txadona» eta «erkala» esate hutsarekin euskera garbiz

ari zela uste izan zuenik izan zen, euskeraz egiteaz baino erdal-kutsuren bat izan zezaketen hitzez ez baliatzeaz gehiago arduratzen zirela; horren ondorioz, garai hartako zenbait idazlanetako euskera zaila, elkorra eta adieraz-indarririk gabea. Baziren, aldi berean, benetako euskeraren, euskal senezko hizkuntza osatuaren alde zeudenak ere (Azkueren izena aipatzea



Zeraingo Jauregin, Mirentxu andrearekin eta Karmele eta Txema Mujika koinatu-koinatekin

aski) eta, nik neuk, guztiok dakizkigun gertakariak Euskal Herriko gizarte-bizitza eten ez balute zentzua nagusituko zatekeela uste dut bete-betean.

Hizkuntza-eredu hark Orixei zor zion, beste inori baino gehiago eta «euskal sena» zuen kontzeptu nagusia. Euskal sen hori, ez zuen Josu Oregik gaztelaniarekiko «bestelakotasunean» oinarritzen (euskara ez zen, beraz, gaztelania ez zena), baizik eta euskarazko diskurtsoaren auto-

nomian: euskara zen, euskara ona, jatorra, gaztelaniara jo gabe ulertzen zena, uler zitekeena. Hona bere hitzetan:

Honako hau litzateke, beraz, irizpide nagusizat darabilguna: gaia ezagutzen duen edo ezagutzeko gai den euskaldun batez bigarren aldiz irakurri eta, euskaldun denez uler dezan itzulpena ematea.

Lexikoan, euskal ondareko hitz zaharra berreskuratu eta gaurkotu egin ohi zuen (adibidez, *orube*, *baltzu* edo *errepide*), baina baita, esan bezala, mailegua, zaharra nahiz berria, ongi errotua bazegoen (adibidez, *lege* edo *telebista*), beti ere hitz eratorriak euskal eratorpen bidez eginik (adibidez, *legezko* eta ez *legal*); bestalde, euskarak gerra aurrean administrazio arloan zuen tradizio murrizta ere gorde nahi izan zuen (adibidez, *sail*, *Ertzaintza* edo *Agintaritzaren Aldizkaria*), ez ordea garai hartako hizperriak, *notin* (norbanako, pertsona), *latziñaldaritegi* («notaría») edota *Laterri* (nazioa).

Hitz eratorriak eta hitz-elkarketa sistematikoki erabiltzen zituen (adibidez, *legegintza*, *auzibide* edota *legegintzaldi*, lehen kasuan eta *diru-laguntza*, *zerga-kudeaketa*

edo *autonomia-estatutoa*) eta bide horretatik ematen zituen adjektibo erreferenzialak (adibidez, *herri-*, *zerga-* edo *zigor-*, *publiko*, *tributario* edo *penal* erabili beharrean). Dena den, hizperriak, neologismoak, ere asmatu zituen (adibidez, *arduralaritza*) eta perifrasiara edo azalpenara ere iristen zen, adibidez *esku-ondasunak* eta *lur-ondasunak*, *bienes muebles* eta *inmuebles* esateko.

Morfologian, hitz-elkarketarako eta nominalizaziorako joera nabarmentzen ziren eta, horiekin batera, birdeklinazioaren presentzia ugaria. Aurreko urteetako euskalari-azterketei jarraituz, Josu Oregik birdeklinazio zaharkituak erabili zituen, itzuli beharreko kontzeptuak zehaztearren. Horrela, adibidez, *eguneango* (egunean egiten dena adierazteko) edo *jarduneango* («en funciones» esateko), *eguneko* edo *jarduneko* modernoagoen partez.

Joskerari dagokionez, Josu Oregik posposizioa erabiltzen zuen orokorki, Altuberen arauak zorrotz jarraituz, eta itzulpen-irizpideen alorrean, jatorrizko testuen segmentazioa gordetzen zuen, hizkuntza-

ren baliabideak ustiatuz. Horrela zioen lehen aipatu dugun lanean:

Bainan hiztegiaren aldetikako korapiloez gainera, besterik ere bada agintaritza-alorreko idazkietan, joskeraren aldetikakoak alegia eta nondik norakoak diren uletzen ez da zaila. Lehen esan dudanez, jatorrizko erderazkoak itzuli behar izaten ditugu eta guztiok ezagutzen duzue, noski, esaldien neurriaren eta igikeraren aldetik gaztelaniaren eta euskeraren artean dagoen aldearen haundia.

Eta alde hori areagotu egiten da, eta zatia areagotu ere, gaztelaniaz erabili ohi den arduralaritza-hizkerari bagagozkio. Menpeesaldiak pilatuz eta pilatuz osatutako akaburik gabeko lerroaldiak euskal esate-moduetatik erabat bestelako, ia alderantzizko gertatzen direla esango nuke.

Elertiaren alorrean korapilo hori nola askatu ohi den badakigu: lerroaldiak moztuz, zatituz eta euskal senera egokituz. Agintaritzaren alorrean, ordea, aterapide hori ezinezkoa gertatzen zaigu, horrek esaldiaren haria eten eta bata bestearekiko atxikitasuna eta menpetasuna hautsi egingo bait lituzke, zehaztasunaren kaltetan. Arazo horrentzako aterapidea zera litzateke: agindu horiek euskeraz idatzi eta gaz-





Artikuluak

telaniara itzultzea, edo gutxien gutxienez, horren ardura dutenek arazoaz jabetu eta bere esaldiak laburtzen eta menpeesaldiak gutxitzen ahalegintzea. Horrekin, gainera, erderazko idazkera bera ere irabazten aterako litzatelakoan nago batzutan, sokaren luzea dela eta, adierazi nahi dena zehatz ulertzeak berak lanak ematen bait ditu.

EREDU TRINKOA ETA ZURRUNA


Itzulpena transliterazio huts bezala ulertzen zuen hainbeste itzultzailearen aurka, edota gaztelaniazko hitz eta egiturak euskarazko baliokidez ordezkatzeko huts bezala, Josu Oregik mezuaren osotasuna eta jatorrizko testuaren ulerpen osoa eskatzen zituen itzultzeko: osorik ulertzen ez den testua ezin dela itzuli aldarrikatzen zuen behin eta berriro, idazten zutena ulertzen ez zuten itzultzaile batzuen aurrean.

Eredu haren goi-asmoa euskal testuaren autonomia izan zen, euskarazko bertsioa bera eta berez ulertu ahal izatea, irakurlearen ahalegina eskatzen bazuen ere. Horrela, etorkizunerako eredu bat landu

nahi izan zen, hizkuntza-tresna zailu eta trebea, geroko euskarazko administrazio batentzat. Josu Oregi beraren hitzetan:

[...] gure lana eta bertatik bertarako ondorioei bagagozkio ia alperrikako denaz jabetuta gaude; gerora begira ari gara beraz, gure agintariek bere manuak euskaraz eman ahal ditzateneko bidearen zegunak jartzen.

Itzulpen-lan eskerga horren emaitza agintaritzaren aldizkarietan bertan aurkituko du ikertzaile eta aztertzaileak. Baita Legebiltzarreko itzultzaile-taldearen izenean 1985ean plazaratutako *Agintaritzaren aldizkarietarako hitz-bilduma* izeneko hiztegiaren ere. Hiztegi edo hitz-bilduma horrek gaztelaniatik euskararako legegintza eta administrazio arloko hitz eta esapideak biltzen ditu, askotan testuinguru argigarriarekin eta, batzutan, baita erreferentziarekin ere. Itzulpen-lanaren ondorio eta hustuketa da, beraz, eta urteen buruan gauzatutakoa.



Legebiltzarreko itzultzaileek egindako hiztegia

Laburbilduz, horrek guzti horrek hizkuntza-eredu oso trinkoa eta zurruna eman zuen, garai hartako itzultzaileek nekez jarrai zezaketena. Saio hura hamabost bat urtetan garatu zen. Ez da, oro har, aurrera atera, ez da nagusitu, baina hor gelditzen da lan eskerga hori, bere ahalegin, irtenbide eta proposamenekin, gaur-biharko itzultzaileentzat eta zuzenbide-euskararentzat.

Josu Oregiren idazlanak

«Euskal Adizkera. (Hitzaurre bat eta hamaika saio. Piarres Lafitte-ren Atari gisakoa)». Ed. La Gran Enciclopedia Vasca, 1982.

Artikuluak

— *Yakin*

- «Idazki ezkutua. (Aldapekori)», 1965, 17. alea.
- «Idazki ezkutua II. (Aldapekori)», 1965, 18. alea.
- «Argiaz zerbait», 1965 20. alea.
- «Fisikaz eta», 1965, 18. alea.
- «Elkarriketa. Bergararik», 1965, 19. alea.
- «Noiz? Nun?», 1965, 19. alea.

— *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*

- «Ojeando viejas revistas», 1950, VI, 233-236.
- «Sobre algunos aspectos de la conjugación vasca», 1953, IX, 37-60.
- «El itinerario de la fuga de César Borgia», 1964, XX, 317-318.
- «Rectificando una fecha, la fundación de Sasiola», 1974, XXX, 263-264.

— *Fontes Linguae Vasconum*

- «Aditzeko askargille batzuei buruz», 1971, III, 307-310.
- «Ochoa Arinen Doctrina (1713)», 1972, IV, 353-369.
- «Euskal aditzaz zenbait gogoeta», 1974, VI, 265-283.
- «Jupiter, oste eta osterantzekoak», 1976.

- «Birdeklinaketa. Aditz-flexioekingo (e)n ariazko atzizkia», 1977.
- «Berriz ere euskal aditzaz», 1985, XVII. urtea, 265-282.
- «Textos antiguos vascos. Acotaciones», 1992, XXIV. urtea, 263-270.

— *Euskera*

- «Leizarragaren aditza dala ta», XIX, 1974, 233-239.
- «Leizarraga, Bonaparte eta beste», XIX, 1974, 276-278.
- «Euskal aditzen sailkakera jator baten bila», XX, 1975, 359-372.
- «Gramatika-gaiak. Esakune baten azterketan lehen-urratsak». XXI, 1976, 194-203.
- «Birraztapen bat: «Hiketa» eta «Zuketa»», XXII, 1977, 685-699.

— *Kardaberaz Bazkuna*

- «Erion aditzaren erabil-arauez», 1973, II, 59-62.

— *Elbuyar*

- «Egungo fisikaz», 1975, 4, 27-34.

— *Arizondo*

- «Curiosa descripción de Bergara», 1976, n.º 1.
- «Begarako euskera», 1976, n.º 1.
- «Begara eta ostraillika», 1976, n.º 2.
- «1506.gneko egun batez», 1977, n.º 3.

Bestelakoak

- Leandro Silván, *Cerámica del País Vasco*, San Sebastián, 1982. Josu Oregiren «Aintzin-hitzak».

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzogatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Oregi familiari
- Juan San Martíni
- Bergarako Udal agiritegiari

Zuzendaritza: Mikel Atxaga
Argitaraldia: 1.a, 2009ko abendua
Ale-kopurua: 2.300
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria: Edorta Sanz
Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao
Inprimaketa: Grafo, S.A.
Cervantes etorb., 51 - 48970 Basauri (Bizkaia)
ISBN: 978-84-457-3018-8 (Lan osoarena)
978-84-457-3022-5
L.G.: BI - 3.368-2009

BIDOGUILLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco